

êçp̃ escola de  
cultura de pau



ahotsak



*Euskadi, auzolana, bien común*



28

# AHOTSAKEN esperientzia: Emakumeak elkarrizketaren alde euskal gatazkan

## Quaderns de Construcció de Pau

Ana Villellas Ariño  
María Villellas Ariño  
Pamela Urrutia Arestizábal

2020ko otsaila

*Escola de Cultura de Pau* eskolaren argitalpen bat da *Quaderns de Construcció de Pau*. Eskola horrek helburu gisa du bakea eraikitzearen arloan egiten dituen ikerketak zabaltzea eta horretan interesa dutenei hurbiltzea. Ikerketa-koadernoek hiru lan-ildo nagusi izango dituzte. Lehenik eta behin, gaurkotasuneko gaiei buruzko analisi-dokumentuak eskainiko dira, gogoeta akademikoak plazaratzeko. Horrez gain, proposamenak aurkezteko dokumentu batzuk egingo dira, bakea eraikitzeo hainbat eremutan parte hartzen duten eragileen esku-hartzea errazteko. Azkenik, gatazka armatuak, tentsioak, bake-prozesuak edota gerraosteko errehabilitazio-prozesuak aztertzeo monografikoak egingo dira, *Escola de Cultura de Pau* eskolako ikertzaileek gai horien inguruan lekuan bertan egindako analisisien emaitza gisa.

Txosten hau honako pertsona hauek egin dute: Ana Vilellas Ariñok, María Vilellas Ariñok eta Pamela Urrutia Arestizabalek.

Txosten hau ingelesez argitaratu zuten *Democratic Progress Institute* (DPI) eta *Escola de Cultura de Pau* erakundeek 2018ko azaroan. Txostena egiteko, *Agència Catalana de Cooperació al Desenvolupament* (ACCD) erakundearen laguntza jaso zuten. DPIren ingelesezko bertsioaren ©



Argitalpen honek Creative Commons motako lizentzia du. Baimena ematen da lan honen erreprodukzio osoa edo partziala, banaketa eta komunikazio publikoa egiteko, betiere merkataritzarako helburuarekin ez bada eta jatorrizko lanaren egilea nor den aitortzen bada. Ez da obra eratorriak sortzeo baimenik ematen.

Txosten honen edukiak egileena ez beste inoren erantzukizuna dira eta ez dute halabeharrez ACCDren, Kataluniako Generalitatearen edota *Democratic Progress Institutere*n iritzia islatzen.

Honako hauen babesarekin:



## AURKIBIDEA

4	Sarrera
4	Ahotsak sortu zeneko gatazkaren testuingurua
5	Ahotsak-en ibilbidea
5	3.1. Ahotsak-en jatorria. Gemma Zabaleta eta Jone Goirizelaia elkarrengana hurbiltzea
6	3.2. Ahotsak sortzea. Zirkulua handitzea eta lan diskretua egitea
7	3.3. Fase publikoa. Ahotsak-en elkarrizketak eta akordioak sozializatzea
8	Ekimena erraztu duten faktoreak eta lan-metodologia
10	Oztopoak
13	Ahotsak-en eragin positiboak
15	Jarraitutasuna, ondarea eta ikasgaiak
18	1. eranskina. Ahotsak-en sortze-agiria
19	<i>Escola de Cultura de Pau</i> eta <i>Democratic Progress Institute</i> erakundeei buruz

## Sarrera

Ahotsak 2000. urtean sortutako mugimendua izan zen, euskal gatazkari irtenbideak bilatzeko emakumeek duten rola aldarrikatu zuena. Lurralde eta sektoreen ikuspuntutik eragile anitz bildu zituelako nabarmendu zen ekimena, Euskadiko, Iparraldeko eta Nafarroako esparru politiko osoko emakumeak bildu baitzituen – Partido Popular (PP) eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) alderdietakoak izan ezik –, baita lurralde horietako sindikatu eta erakunde feministetako emakumeak ere. Hala, Ahotsak-ek adierazi zuen aurreiritzirik eta baldintzarik gabeko elkarrizketaren alde egin behar zela. Ahotsak askotarikoak zirenez, eta gutxieneko izendatzaile amankomunak bilatzen dituen metodologia erabiliz –haien arteko desberdintasunetan baino, batzen zituenean jarriz arreta–, Ahotsak taldeko kideek agertoki berri bat irekitzeko oinarrizko hiru premisa adostea lortu zuten. Mugimenduak 2006ko apirilaren 8an argitaratutako sortze-agirian jaso ziren printzipio horiek, honako hauen garrantzia azpimarratu zutenak: 1) bakea eskakizun kolektibo eta lehentasun politiko gisa identifikatzea (edukiz bete beharko litzatekeena eta bake negatiboa edo indarkeriarik eza gainditu beharko lukeena); 2) proiektu politiko guztien zilegitasuna aitortzea, salbuespenik gabe, eta proiektu horiek bide demokratikoak soilik erabilita egikaritzearen garrantzia onartzea; eta 3) marko juridiko-politiko aldatu edo mantentzeari buruz euskal gizarteak erabakitzeke duen eskubidea errespetatzeko konpromisoa hartzea.<sup>1</sup>

Ekimen horrek harrera positiboa izan zuen, kontsentsua bilatzeko mekanismo gisa elkarrizketari balioa eman ziolako, eduki politikoa duten akordioak lortzeko gaitasuna adierazi zuelako eta emakumeek gatazkaren konponbidean duten rola ikusarazi zuelako. Ahotsak mugimenduak ilusio eta itxaropenak piztu zituen, herri-mailan oihartzuna izan zuen eta Espainiako Estatuko hainbat lekutan babesa jaso zuen. Hala ere, hainbat oztoporri egin behar izan ziren aurre eta bereziki zaugarria izan zen gatazkaren gorabeheren aurrean. Horrek ibilbide laburra izatea eragin zuen, eta 2007tik aurrera, ETAK indarkeriari berriro ekin ondoren, bere jarduera pixkanaka murriztu egin zen.

Txosten honek Ahotsak-en esperientzia aztertzen du eta sei ataletan egituratzen da. Lehenik eta behin, euskal gatazkaren testuingurua deskribatzen da, baita Ahotsak sortu zenean bizi zen egoera ere. Bigarrenik, Ahotsak-en ibilbidea aztertzen da eta, horren baitan, mugimenduak bizi izan dituen hiru faseak bereizten dira. Hirugarrenik, ekimena erraztu duten faktore batzuk eta haren alderdi metodologikoak azaltzen

dira. Laugarren atala Ahotsak-ek aurre egin behar izan ziren oztoporri buruzkoa da, eta bosgarrena, berriz, esperientziaren eragin positiboari buruzkoa. Txostenaren azken atalak iraunkortasunaren, ondarearen eta esperientziarekin ikasitako inguruko gaiak jorratzen ditu. Metodologiari dagokionez, txostena egiteko analisi kualitatiboaren ikuspegia erabili da. Horretarako 17 elkarrizketa erdi-egituratu egin dira eragile-multzo zabal batekin, besteak beste, Ahotsak-en lantalde sustatzailean parte hartu zuten emakume politikariek, ekimenean parte hartu zuten sindikatu eta erakunde feministetako emakume ordezkariak eta Ahotsak-en udal-mailako taldeetan parte hartu zuten emakumeekin. Horiez gain, Euskal Herrian gatazka eraldatzeko ahaleginetan parte hartu zuten beste eragile politiko eta sozial batzuei eta bakearen aldeko ikerlariari ere egin zaizkie elkarrizketak. Elkarrizketak 2018ko apirila eta ekaina bitartean egin ziren. Horrekin batera, Ahotsak-en esperientzia jaso duten prentsa-artikuluak berrikusi dira, baita mugimendu horri buruzko beste argitalpen batzuk eta plataformak berak egindako jakinarazpenak ere.

## Ahotsak sortu zeneko gatazkaren testuingurua

Euskal gatazka euskal biztanleriaren sektore esanguratsu baten identitate eta autogobernurako eskaeren aferei dagokie, bai eta proiektu politikoen arteko talkari ere. Hori guztia nazio anitzeko eta demografikoki konplexua den testuinguru batean ematen da, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroaren zati batean (Espainiako Estatuan), eta Frantziako Estatuko hegoaldeko zati batean. Kultura-, hizkuntza- eta lurralde-elementuek, besteak beste, euskal herritarren sektore zabal bat mobilizatu dute. XX. mendearen bigarren erditik aurrera, gatazkan eragin zuzena izan du ETA talde armatuak egindako zuzeneko indarkeriak. Talde hori berrogeita hamarreko hamarkadan sortu zen, Francoren diktaduran, eta Euskal Herriarentzako autodeterminazioa eta Estatu independente bat sortzea eskatzen zuen. Espainian demokrazia berrezartzeak egungo autonomien Estatuari bidea ireki zion, non Euskadi eta Nafarroarako berriazko eskumen zabalak bermatu baitziren. Gatazka iraun duen hamarkadetan, askotariko indarkeria-motak salatu izan dira, besteak beste, ETAK-en indarkeriak eragindako heriotzak (837 hildako), segurtasun-indarren eta talde paramilitarren ekintzek eragindako heriotzak (94 eta 73, hurrenez hurren), eta giza eskubideen bestelako urraketa batzuk, segurtasun-indarrek egindako tortura eta ETAK

1. Ikus 1. eranskina: "Ahotsak-en sortze-agiria".

2. Euskal gatazkako giza eskubideen urraketei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Hainbat egile, "Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarrizko txostena (1960-2013)", 2013ko ekaina. Txosten hori Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza Nagusiak eskatu zuen. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos\\_paz\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/giza\\_eskubideen\\_urraketak.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/giza_eskubideen_urraketak.pdf)

egindako estortsio ekonomikoa barne.<sup>2</sup> Espainiako ia gobernu guztiak saiatu dira unerren batean edo bestean ETArekin negoziatzen, zailtasun askorekin. 1981 eta 1982 urteetako negoziazioen ondorioz, ETA politikomilitarra desegin egin zen, 1982ko Zazpigarren Biltzarrean. Laurogeiko hamarkadaren amaieran, PSOEren gobernu sozialdemokratarekin Aljerren egin ziren Elkarriketek porrot egin zuten. PPren gobernu kontserbadoreak 90eko hamarkadaren amaieran egindako hurreratzeek ere, su-etenekin batera, ez zuten arrakastarik izan.

Ahotsak, beraz, amorru eta tentsio handiko testuinguruan sortu zen. Une hartan, Espainiako Gobernua Alderdi Popularraren (PP) esku zegoen. Alderdi horrek, Jose Maria Aznarren gidaritzapean (1996-2004), gatazka politikoa existitzen zela ukatu egiten zuen, eta bere estrategia ETArekin aurka egitean ardazten zuen. PPren Gobernuaren eta ETArekin arteko bake-elkarriketek 1999an porrot egin ondoren eta 1998 eta 1999 arteko su-etenen ostean (Lizarragaraziko Akordioaren ondoren etorri zena)<sup>3</sup>, euskal talde armatuak berriro ekin zion indarkeriari eta areagotu egin zituen PP eta PSOEko politikarien aurkako mehatxu eta atentatuak. 2000ko urtarriletik 2003ko maiatzera bitartean, 46 pertsona hil zituen<sup>4</sup>, besteak beste, Fernando Buesa (PSE), Juan Mari Jauregui (PSE) eta Ernest Lluch (PSC) sozialista ezagunak. Orduan, PPK eta PSOEkin Itun Antiterrorista sinatu zuten (Askatasunen aldeko eta Terrorismoaren aurkako Akordioa, 2000. urtekoa), eta Alderdien Legea (2002. urtekoa). Auzitegi Gorenak Batasuna (eta bere aurretiko Herri Batasuna eta Euskal Herritarrok) legez kanpo utzi zuen 2003an<sup>5</sup>, "ETArekin osagarri politikotzat" jo zituelako. 2004an, Konstituzio Auzitegiak epai hori berretsi egin zuen<sup>6</sup>. Giza eskubideen urraketez jositako hamarkadak izan ziren, kontuan hartuta segurtasun-indarrek egiten zituzten torturak, ETArekin egiten zuen estortsio ekonomikoa edota talde armatuak egiten zituen mehatxuak (bizkartzaina erabiltzera behartzen zutenak), besteak beste<sup>7</sup>.

Giro politikoa orokorraren ezaugarria zen gatazkako eragileen artean komunikaziorik ez zegoela. Hala ere,aldi berean, 2000. urtean Jesus Eguiguren buruzagi sozialista eta orduan Batasunako buru zen Arnaldo Otegi<sup>8</sup> arteko elkarriketa sekretuen bide bat abiatu

zen, eta, Fisas-ek dioenez, 2002 eta 2003 artean beste urrats batzuk ere egin ziren, proposamen gisa eta agertoki posiblistagoak bilatzeko<sup>9</sup>. Urrats horien artean, Batasunaren 5. agiria egon zen, "Un escenario de paz" (2002), nazioko parte izateko hainbat modu aitortzen zituena, beste hainbat alderdirekin batera, edota Gemma Zabaleta eta Denis Itxaso politikari sozialisten "Ezker eskuaz" (Con mano izquierda) liburua (2002), Batasunarekin elkarriketa irekitzea proposatzen zuena. Testuinguru horretan, Eusko Legebiltzarreko emakume politikarien ekimen gisa sortu zen Ahotsak, *status quo*a aldatzeko, inkomunikazio-dinamika hausteko eta beren militantzia politikoak gaitzitu zuten eta bake-prozesua erraztuko zuen kontakizun berria garatzeko beharraz sinetsita.

## Ahotsak-en ibilbidea

Ahotsak-ek hiru fasetan garatu du bere ibilbidea, 2002. urtetik aurrera. Gutxi gorabehera, 2002 eta 2003 urteetan, nazio ikuspegiari dagokionez elkarrengandik urrunen dauden polo politikoetako –PP kontuan izan gabe– bi legebiltzarkideren arteko hurbilketa egin zen, hain zuzen, Gemma Zabaleta (PSE) eta Jone Goirizelaiaren (Batasuna) artean, isilpean eta ez publikoki. Bigarren etapa batean, ekimena zabaldu egin zen, hasiera batean emakume legebiltzarkideengana eta, gero, beste emakume politikari eta sindikal batzuekengana. Etapa hori 2006ko apirilera arte luzatu zen, orduan mugimenduaren hirugarren etapari hasiera eman zion sortze-agiria ezagutarazi baitzen. Hirugarren fase horretan, Ahotsak eremu publikoan jardun zen batez ere. Gatazkaren bilakaerak zuzenean baldintzatu zituen fase horiek.

### 3.1 Ahotsak-en jatorria. Gemma Zabaleta eta Jone Goirizelaia elkarrengana hurbiltzea

Esperientziaren bultzatzaile nagusiak Gemma Zabaleta eta Jone Goirizelaia izan ziren, arku politikoaren mutur banatan kokatuta zeudelarik (PP kontuan izan gabe). Lehena buruzagi sozialista eta Eusko Legebiltzarreko parlamentaria zen, Euskadiko Alderdi Sozialistaren (PSE) aldetik. Bigarrena, aldiz, Ezker Abertzaleko buruzagi ezagun eta abokatua, Batasunaren<sup>10</sup> aldetik zen

3. Lizarra-Garaziko Akordioa 1998ko irailean sinatu zuten euskal indar politiko, sozial eta sindikal nazionalistek, baita EBk ere. Akordiotik kanpo geratu ziren euskal indar ez-nazionalista nagusiak (PSOE eta PP). Akordioak ETArekin elkarriketa izatea eskatzen zuen. Hemen akordioaren testua: [https://eu.wikisource.org/wiki/Lizarra-Garaziko\\_Akordioa](https://eu.wikisource.org/wiki/Lizarra-Garaziko_Akordioa)

4. Eguiguren, Jesus eta Rodriguez Aizpeolea, Luis, ETA. *Las claves de la paz. Confesiones del negociador*, Bartzelona: Aguilar, 2011.

5. Ezker abertzalea elkartu duen alderdiaren izena aldatu egin da urteetan zehar, neurri batean, indar politiko hori legez kanpo uzteko prozesuen ondorioz: Herri Batasuna, Euskal Herritarrok, Batasuna, Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunista, ANV, Bildu, Sortu eta EH-Bildu. Indar horietako batzuk beste alderdi batzuekin egindako koalizioak dira, adibidez EH-Bildu.

6. La Vanguardia, "El Constitucional confirma la ilegalización de Batasuna", *La Vanguardia*, 2004ko urtarrilaren 16an, <http://www.lavanguardia.com/politica/20040116/51262787086/el-constitucional-confirma-la-ilegalizacion-de-batasuna.html>


7. Euskal kasuan izan diren giza eskubideen urraketen deskribapen eta kuantifikazioa ikusteko, ikus Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzak Idazkaritzak eskatutako txostena: Hainbat egile, "Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena (1960-2013)", 2013.

8. Eguiguren eta Aizpeolea, 2011.

9. Fisas, Vicenç. *Anuario de Procesos de Paz* 2012, Bartzelona: Icaria, 2012.

10. Jone Goirizelaia legebiltzarkidea izan zen 2001-2005 legegintzaldian, baina ez 2005-2009 legegintzaldian, Batasuna legez kanpo uztearen ondorioz.

1. grafikoa. Ahotsak: eragile motak eta horien bilakaera



parlamentaria Eusko Legebiltzarrean. Garai horretan, Zabaleta eskolta batekin joaten zen, eta Goirizelaiak bere alderdia legez kanpo uzteko prozesuari aurre egin behar zion. Harreman pertsonaletik eta konfiantza eraikitzeak abiatuta, bi politikariek 2002an hurbilketa diskretu batzuk hasi zituzten, Euskal Herriko gatazkari irtenbidea bilatzeko asmoz. Gizarte zibileko erakunde bakezaleen jarduerak eskaintzen zituzten espazioek erraztu zuten bien arteko harremana, esaterako, Elkarrik, edota ikertzeko eta diplomazia paraleloari laguntzeko zentroek, hala nola Escola de Cultura de Pau eskolak (ECP) eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak. Hala, bi politikariek agerraldi publikoak egin zituzten elkarrekin, elkarrizketen, hitzaldien eta eztabaidaguneen bidez. Hasiera bateko elkarrizketa horrek bilatu zuen "besteak egiaren zer zati duen" ezagutzea, Jone Goirizelaiaren hitzetan, eta "bakea argitzeko zer gehiago egin genezakeen" jakitea, Gemma Zabaletaren arabera.

Zabaletak eta Goirizelaiak oinarri gisa zuten beren erakunde politikoak zirela gatazkaren bilakaeraren eragin handienetakoa jasan zutenak, eta haien artean jarrerak hurbil zitzaizketela egiaztatu zuten.<sup>11</sup> "Kontakizun bat egiten saiatu behar gara eta bake-prozesuaren aldeko diskurtso politikoa landu behar dugu, partekatzen dugun guztian oinarrituta", ondorioztatu zuten, Zabaletaren hitzetan. Haien arteko konfiantza eraiki ondoren, Zabaletak eta Goirizelaiak hasierako zirkulu hori Eusko Legebiltzarrean

ordezkatuta zeuden indar politiko guztietako ordezkari hautetsiei zabaltzea sustatu zuten, PPko kideei izan ezik: Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE), Batasuna, Eusko Alkartasuna (EA), Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ/PNV), Ezker Batua (EB) eta, ondoren, Aralar alderdietako ordezkariak, hain zuzen. PPko emakumeak ere gonbidatu zituzten parte hartzera, baina haien alderdiak ez ziren utzi (ikus 5. atala).

3.2 Ahotsak sortzea. Zirkulua handitzea eta lan diskretua egitea

2004. urtearen inguruan, Ahotsak-ek lanerako bigarren fase bat hasi zuen, diskretua baina aurrekoa baino zabalagoa. Hala, ezkutuko bilerak egin ziren eta Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik zeuden indar politiko guztietako kideen artean konplizitateak sortu ziren. Guztiekin lortu zen, PPkoekin izan ezik. Bigarren fase horretan, Ahotsak elkarrizketarako plataforma gisa egituratu eta finkatu zen. Kideek erabaki zuten norbanako gisa parte hartuko zutela ekimenean –nahiz eta jatorria alderdietan izateak egoera anibalenteak sortu zituen (ikus 4. atala)– eta "batzen gaituenetik lan egitea, eta ez bereizten gaituenetik" printzipioaren aldeko metodologiaren alde egin zuten.

Ahotsak-en bigarren fase hori Euskal Autonomia Erkidegoko emakume parlamentariaren aliantzen eta lan kooperatiboaren aurretiko esperientzian oinarrituta

11. Ikuspuntu hori bera izan zen, hain zuzen ere, bi urte lehenago Otegik eta Eguigurenek isilpean hasitako elkarrizketen abiapuntua.

eraiki zen eta, azkenean, haiek ere Ahotsak-en parte izaten amaitu zuten. Zehazki, Eusko Legebiltzarreko Emakume eta Gazteria eta Lan eta Gizarte Gaietarako Batzordeetan parlamentariak elkarrekin lan egiteko eta kontsentsua eraikitzeke zuten esperientziatik asko jaso zuen Ahotsak-en metodologiak. "Gizarteko gaiak kudeatzen genituela genuen amankomunean, eta espazio horiei esker akordioak lortzeko trebatuak ginen", Kontxi Bilbao (EB) azaldu zuenez. Batzorde horietan egindako lanari esker, 2003an Izatezko Bikoteen Legea onartu zen, atzera begira, Ahotsak osatzen duten parlamentari guztiak inflexio-puntutzat hartzen dutena. Lege hori talde politiko guztien babesarekin (PPrena izan ezik) onartzeak ezohiko irudia eman zion Legebiltzarrari, garai hartako polarizazio politiko handiarekin alderatuz gero. Izan ere, polarizazio horrek eragotzi egiten zuen gehienetan indar politikoek hain akordio zabalak lortzea.

Hortaz, elkarrengandik urrunen zeuden posizio politikoetako emakumeen –Gemma Zabaleta (PSE) eta Jone Goirizelaia (Batasuna)– arteko hasierako aliantza garrantzi handiko faktore bateratzailea izan zen Ahotsak sortzeko, eta horri gehitu egin zitzaion euskal gatazkaz bestelako esparruetan Legebiltzarrean itunak egitean zegoen esperientzia. Gizarte-arloan elkarrekin lan egiteko gai zirela onartu ondoren, Gemma Zabaleta eta Jone Goirizelaiaren arteko konfiantzan eta elkarrizketan oinarritutako harremanak bultzatuta, emakumezko legebiltzarkideek hausnarketa-prozesu bateratua abiatu zuten Euskal Herriko gatazkaren eta horri irtenbidea emateko bideen inguruan, eta gatazkarekiko askotariko jarrerak zituzten emakumeen arteko adostasun-puntuak definitu zituzten. Nekane Altzelaik (EA) adierazi zuenez, "gizarte-arloko gaiez hitz egitean, giro lasai eta atseginean jartzen ginen harremanetan, eta horrek konfiantza-harremanak sortu zituen, baita adiskidetasun-harremanak ere, eta pentsatu genuen arlo horietan ados jartzen baginen, Euskal Herriaz ulertzen dugunaz ere hitz egiten has gitezkeela, edota erabakitzeke eskubideaz, biktimen sufrimenduaz, presoez...". Prozesu horrek Ahotsak elkarrizketarako gune finko gisa egituratzea ekarri zuen, bilerak maiz egin ziren eta akordioak bilatzeko eta gaien agenda partekatzeko metodologia erabili zen (ikus 4. atala). Azken helburua zen gatazka konpontzen laguntzea eta, horretarako, emakumeek irtenbideak bilatzen izan dezaketen parte-hartzea sustatzea.

Ahotsak-en lana pixkanaka zabaltzen joan zen. Hasieran bi pertsonak egindako lan horretatik – ekimenaren sorburua izan zena –, legebiltzarkideen talde txiki batera igaro ondoren, Ahotsak Euskadiko, Iparraldeko eta Nafarroako emakume politikariengana zabaldu zen. Beste lurralde horietan ahizpak ziren indar politikoetako emakumeekin zituzten kontaktuez baliatu ziren Eusko Legebiltzarreko emakume

parlamentariak, beste horiek ere Ahotsak plataforman sartzeko, elkarrizketetan parte hartzeko eta haien babesa izateko. Alderdi politikoen arloan harremanak egin eta gero (Frantziako Alderdi Sozialista barne, esate baterako), hurrengo urratsa sindikatuak batzea izan zen. Euskal Herrian aktibo diren sindikatu guztietako emakumeak gonbidatu ziren Ahotsak-en parte hartzera. Hala, indar sindikal nagusien ordezkariak –Estatu-mailan nagusi diren sindikatuek Euskal Herrian dituzten adarrak barne– bileretan parte hartu zuten, baita gatazkari irtenbideak bilatzeko adostasunak eraikitzeke prozesuan ere.

Estatu-mailako testuinguru politikoak erraztu egin zuen Ahotsak esparru politikoan eta sektorialean eta lurraldean zabaldu eta hedatzea, 2004an PSOE boterera iritsi ondoren, Jose Luis Rodriguez Zapatero buru zuela, eta euskal auziaren inguruan elkarrizketak abian jarri ondoren. Horrek guztiak bake-prozesua ekarri zuen. Ahotsak-en talde zabala osatu ondoren, parte-hartzaileek sortze-agiria egiteke testua adostea lortu zuten. Adierazpen horrek euskal gatazkari irtenbidea bilatzeko oinarritzko printzipioak jaso zituen (ikus 1. atala), eta 2006ko apirilean argitaratzea erabaki zuten. Horrela eman zioten hasiera hurrengo faseari, hots, fase publikoari.

### 3.3 Fase publikoa. Ahotsak-en elkarrizketak eta akordioak sozializatzea

Giro egokiagoa aurkitu zenean aurkeztu zen Ahotsak jendaurrean. Hala, ETAk 2006ko martxoan su-eten iraunkorra iragarri eta gero egin zen. Aurkezpen-ekitaldia Donostiako Miramar Jauregian egin zen, 2006ko apirilaren 8an, eta 200 emakumek hartu zuten parte. Testua hiru emakume kazetarik irakurri zuten jendaurrean, gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez. Hartara, gatazka eraldatzeko eragile aktibo zirela aldarrikatu zuten espektro ideologiko zabal bateko emakumeen foroa izan zen Ahotsak. Sortze-agiria egiten izandako esperientziak, gainera, agerian uzten zuen elkarrizketaren bidez posible zela desberdinen arteko akordioak erdiestea, minimo batzuen inguruan behintzat, eta bake-prozesuaren une gako batean pizgarri gisa balio izan zuen. Edukiari dagokionez, Ahotsak-en manifestua positibotzat hartu zuten hainbat eragile sozial eta politikok, baita orduan lehendakari zen Juan Jose Ibarretxek ere. Gobernuan zegoen alderdiaren baimen inplizitua ere jaso zuen. Adibide gisa, 2006ko bake-prozesuaren baitan, EAJko buruak iradoki zuen Euskal Herriko alderdien arteko elkarrizketa-mahaia eratzeko abiapuntua izan zitezkeela Ahotsak-en printzipioak. Gaur egun, hainbat euskal eragile bat datoz esatean alderdi politikoek ezin izan dutela Ahotsak-ek artikulatu ahal izan zuen moduko diskurtso bateraturik egin, eta ez dela izan aniztasun sozial eta politiko maila hori duen beste ekimenik.

Ahotsak-en sortze-agiria aurkeztu eta gero, mugimenduaren "sozializaziorako" prozesua hasi zen, mugimenduko kideek esan ziotenez eta, ondorioz, agerraldi publikoak areagotu egin ziren. Gainera, Ahotsak plataforma zabaldu egin zen, erakunde feministetako emakumeak hartzeko. Mugimendu feministaren eta emakume politikarien arteko harremanak ez ziren beti errazak izan eta, hain zuzen, sortze-agiria egitean eta aurkeztean mugimendu feminista kontutan hartu ez izanak elkarrizketa zaildu egin zuen zenbait unetan (ikus 5. atala). Hala ere, Ahotsak-en parte hartzen hasi zenetik, elkarrizketa aberastu egin zen. Mugimendu feministak garrantzi handiagoa eman zion emakumeek erabakigune guztietan parte hartzeari eta genero-ikuspegia txertatzeari, Nazio Batuen 1325 ebazpenak zehaztutako nazioarteko markoan oinarrituta.<sup>12</sup> Erakunde feministetako emakumeak sartu ondoren, Ahotsak-en adierazpen publikoetan beste emakume batzuen esperientziei erreferentzia egiten hasi ziren, beste gatazka-egoera batzuetan nazio, politika, etnia edo erlijioaren arabera banaketak gainditzeko gai izan baitziren, bake-prozesuetan beren ahotsa entzunarazteko.

Hirugarren fase horretan, Ahotsak-ek ekimenaren aurkezpen publiko ugari egin zituen Euskal Herrian eta Espainiako hainbat hiritan. Oihartzun handieneko ekitaldia Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen 2006ko abenduaren 3an. Ekitaldi hartan, 2.000 pertsonak hartu zuten parte eta babesa emateko 5.000 sinadura aurkeztu ziren. Ekimenak garrantzi handia lortu zuen gizartearen. Euskal Herriko udalerrietan ekitaldiak antolatu ziren, oro har, ekimena bertatik bertara ezagutu eta protagonistei zuzenean entzuteko aukera izan nahi zuten tokiko eragileek eskatuta. Plataformako kideak euskal lurralde osoan mobilizatu ziren ekimena aurkezteko, hiri eta herrietako emakumeek haien esperientzia errepika zezaten, "hitzetan aurkitzeko elkar, eta ez desberdintasun politikoetan", Kontxi Bilbaok (EB) adierazi zuenez. Ekitaldi horietara askotariko indar politikoetako emakume parlamentariak joan ziren, Ahotsak mugimenduak hartzen zuen espektro ideologiko zabala ikusarazteko, baita erakunde sindikal eta feministetako ordezkariak ere.

Azpimarratzekoa da, gainera, bertaratutako publikoaren ezohiko aniztasuna. Izan ere, askotan, areriotutako indar politikoetako oinarriko militanteak joaten ziren –bestela espazioak nekez partekatuko zituzketenak edota nekez entzungo ziotenak elkarri–, edota politikoki engaiatuta ez zegoen jendea. Gainera, ekimena bultzatu zuten emakume parlamentariak nabarmentzen dutenez, ekintza horiek agerian uzten zuten haien artean eraikitako konfiantza-maila handia zela, gainerako kideek esaten zutenak ordezkartuta sentitzen baitziren guztiak. Estatuko beste hiri

batzuetan ere antolatu zituzten ekitaldiak, hala nola Madrilan,artzelonan eta Santiago de Compostelan. Katalunian, babesa emateko mugimendu bat ere sortu zen (*Dones catalanes per Ahotsak*).

Horrekin batera, herrietan Ahotsak taldeak sortzeko prozesua hasi zen, besteak beste, Arrasaten, Durangon, Gernikan, Elgoibarren eta Tolosan, ekimena udalerrimailan errepikatzen saiatu zirenez gero. Aurretik elkarrekin lan egin ez zuten hainbat indar politikotako emakumeak bildu zituzten talde horiek. Adibide adierazgarri bat Elgoibarko Ahotsak izan zen, Batasuna, EA, PNV, PSE (noizbehinka) eta LAB sindikatuko emakumeak batu baitzituen. Emakume horien artean, gehienak oinarriko militanteak ziren, bat zinegotzia zen, eta gainerakoek ez zuten udaleko politika instituzionalean parte hartzen. Hainbat alditan bildu ziren eta, hala, desberdinen arteko elkarrizketarako gune bat sortu zuten, tokian toki Ahotsak-en antzeko akordioak lortzeko. Herrietako Ahotsak taldeek denbora eta lan gehiena konfiantza eraikitzen eman zuten, gatazkari lotutako tokiko dinamika politikoek alderdi desberdinetako pertsonen arteko harremanak baldintzatu baitzituzten.

Ahotsak-ek 2006an izan zuen jarduera publiko bizia gelditu egin zen ETAk indarkeriari berriro ekin zionean, 2006ko abenduaren 30ean Madrilgo aireportuko T4 terminalean atentatua egin zuenean. Atentatu hori inflexio-puntu garrantzitsua izan zen. Talde armatuak su-etena hausteak Ekuadorreko bi pertsona hiltzea eragin zuen, bake-prozesuari amaiera eman zion eta Ahotsak osatzen zutenen artean distantzia areagotzea ekarri zuen. Mugimendua egoera berriari komunikatu baten bidez erantzuten saiatu zen. Kide batzuek testua lorpen gisa hartu zuten, testuingurua kontuan hartuta mezu amankomuna artikulatzea lortu zuelako, baina beste batzuek gutxiegi zela adierazi zuten, indarkeria irmoago eta esplizituago gaitzetsi nahi baitzuten. Otsailean komunikatu berri bat egiteak are gehiago nabarmendu zituen barne-mailako desberdintasunak, presio politiko eta mediatikoa areagotzen ari ziren testuinguru batean. Horren ondorioz, 2007tik aurrera, Ahotsak-ek nabarmen murriztu zuen bere jarduera publikoa.

#### 4. Ekimena erraztu duten faktoreak eta lan-metodologia

Ahotsak osatzeko lanean eta haren metodologian honako alderdi hauek azpimarra daitezke: konfiantza eraikitzeko mekanismoak, espazio seguruak bilatzea, "ikusezintasun politiko" bezalako faktoreen eragina, norbanako gisa parte hartzeak militantzia politikoarekin eta kargu politikoetan jardutearekin sortzen dituen anibalentziak, lana modu diskretuan egitearen aldeko apustua, akordioak bilatzeko

12. 2006ko uztailan Ahotsak-en sortze-agiria mugimendu feministaren ekarpenekin aberastu zen.



metodologia (desberdintasunak baino gehiago puntu komunak lehenesten dituen), hizkuntza zaintzea eta beste emakume batzuek gatazka-egoeretan izandako esperientziak aintzat hartzea (edo ez), besteak beste. Alderdi horietako asko orduan Gobernuko presidente zen Jose Luis Rodriguez Zapaterok aipatzen zituen (haren agintaldia 2004 eta 2011 urteen artean izan zen). Izan ere, bake-prozesu bat eraikitzeke funtsezko alderdiak identifikatu zituen, eta honako hau adierazi zuen: "Gatazka batean bakea lortzen saiatzeko hiru fase daude aurretik. Lehenbizi, determinazio argia behar da. Zalantzarik gabeko determinazioak botere handiena duenarena izan behar du beti. Bigarrenik, aintzatespena. Gatazka bati irtenbidea aurkitzeko hitz gakoa zein den galdetuko balidate: bestea aintzatestea. Eta hirugarrenik, konfiantza. Diskrezioak elikatu eta aberastu egiten du gatazka batean lan egiteko oinarritzeko baldintza bat, konfiantza".

Espazio seguruak bilatzeari dagokionez, lana publikoa ez zen fasean, talde sustatzailea osatu zuten legebiltzarkideak gune diskretuetan elkartu ziren, batez ere Legebiltzarrean, eta une informalez baliatu ziren elkarrizketak izateko, hala nola jatorduez. Jone Goirizelaiak (Batasuna) nabarmentzen du bilerak egiten hasi zirela "eroso eta seguru sentitzen ginen lekuetan, eta ziur ginen egiten ari ginena ez zela ezagutzera emango". Haietako bat Legebiltzarreko Mahaiko kide zen; beraz, bulego handia zuen Legebiltzarreko leku diskretu batean eta askotan elkartu ziren bertan. Ahotsak beste sektore batzuetara zabaldu zenean, bilerak Parlamentuan egiteari utzi eta beste leku batzuetan ere egiten hasi ziren. Donostiara ere mugitu ziren, Iparraldetik edo Nafarroatik zetozenen joan-etorriak errazteko. Tokian tokiko Ahotsak taldeei dagokienez, esaterako, Elgoibarren, sindikatu baten egoitzan biltzen ziren, alderdi jakin baten egoitzan ez egiteko, nahiz eta independentziaren aldeko sindikatua izan.

Ahotsak osatzen zutenen artean konfiantza eraikitzea eta harreman pertsonalei garrantzia ematea funtsezkoa izan zen ekimena indartzeko. Elkarrizketatutako emakume batek nabarmendu du hasiera batean, taldean hastean, mesfidantza zuela une hartan Parlamentuan zegoen areriotasunaren ondorioz konfiantza falta zuelako. Hala, funtsezkoa izan zen haietako batzuek mesfidantza eta desberdintasun horiek konpontzeko egin zuten lana, konfiantza eta hurbilketa sustatu baitzituzten. Legebiltzarkideek etengabe aipatzen dute enpatiaren eta harreman pertsonalen garrantzia, pisu handiagoko adostasun politikoetara iristeko abiapuntu gisa.

Gainera, emakumeek Legebiltzarrean zuten "ikusezintasun politiko" erlatiboaren eragina ere

kontutan izan behar da. Baldintza horrek erraztu egin zuen publikoa ez zen hasierako fasean elkarrengana hurbiltzea. Izan ere, salbuespenak salbuespen, ez ziren beren talde parlamentarioetan gehien ikusten ziren pertsonak, ikusgarritasun handiena zuten lidergoak gizon parlamentarienak baitziren. "Gu politikan begi-bistakoak ez garenez, mota horretako lanak egin ditzakegu" esan zuen Nekane Altzelaik (EA). Lan kolektiboaren fase ez-publikoari dagokionez, beste elementu batzuk ere azpimarra daitezke, esate baterako, lana barne-mailan soilik egin zela, kanpoko laguntza edo erraztasunik gabe, bakoitzak bere alderdian zituen solaskideez haratago.

Aipatzekoa da, bestalde, Ahotsak-en norbere izenean parte hartzeak ambiguitasunak eragin zituela kideen militantzia politikoarekin eta kargu politikoetan jardutearekin. Izan ere, Ahotsak-eko kideek erabaki zuten norbanako gisa parte hartuko zutela ekimenean –ez zuten beren indar politikoen "transmisio-uhala" izan nahi, Gemma Zabaletaren hitzetan (PSE)<sup>13</sup>–. Dena den, nor bere alderditik etorrita ekin zioten lanari. Alderdi politikoetako pertsonekin harremanetan egotea garrantzitsua izan zen bi muturretan kokatuta zeuden polo politikoetako legebiltzarkideen kasuan (Batasuna eta PSE), apirilean argitaratu zen testu bateratuak bi alderdi politikoen babesaren izan baitzuten. Hainbat modutara irakur daiteke alderdiek testuari emandako babes hori. Alde batetik, agerian uzten du legebiltzarkideek ezin zutela askatasun osoz jardun eta alderdietako eliteek mugimendua nolabait kontrolatzen zutela. Beste alde batetik, babes hori izateak asko indartu zuen dokumentua eta agerian utzi zuen, halaber, Ahotsak osatzen zutenek nolabaiteko gaitasuna zutela alderdiak elkarrizketaren aldeko jarrerak izatera behartzeko. Edonola ere, babes hori ez zen modu ofizial edo publikoan eman. Espazio horretan parte hartu zuten emakumeek norbere izenean egin zuten, baina, zalantzarik gabe, alderdi politikoetan militatzeak eta legebiltzarkide gisa aritzeak ekimena gainditu eta baldintzatu zuten.

Ahotsak-eko kideek modu diskretu eta ez-publikoan lan egitea erabaki zuten, ekimena finkatuta egon arte babestu beharra ikusi baitzuten, gatazkaren ondorioz polarizazio sozial, politiko eta mediatiko indartsua zegoen testuinguru batean. Alderdi politikoen arteko distantzia oso handia zen, halako moldez non ekimenak baztertu egiten baitziren, proiektu bera elkarrekin babesten ez agertzeagatik. Beraz, testuinguru politikoak ez zuten aukerarik ematen mota horretako lan publikorik egiteko, legebiltzarkideek diskrezioz lan egin zuten eta garaia testuinguru horren mende egon zen. ETak su-etena eman arte, ezin izan zen publiko egin elkarrengana hurbiltzeko eta adostasunak

13. Emakunde/ Emakumearen euskal erakundea, Gemma Zabaletaren aurkezpena, Sare 2006 Nazioarteko Kongresua: Emakumeak bakeak eraikitzen, Emakunde 2007. [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_jornadas/eu\\_emakunde/adjuntos/sare2006\\_eu.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_jornadas/eu_emakunde/adjuntos/sare2006_eu.pdf)

eraikitzeko lan hori. ETAk indarkeriarik ez erabiltzea faktore erabakigarria izan zen, hainbestearino non, indarkeria berrabiarazi zuenean, Ahotsak-en lana erabat oztopatu baitzen.

Metodologiari dagokionez, aurretik ere esan dugunez, Ahotsak-eko kideek akordioak bilatzea lehenetsi zuten, elkartzen zituenari desadostasunei baino garrantzi handiagoa emanez. Gainera, bi gai nagusitan ardaztutako dokumentua adosteko lan-agenda zehaztu zuten. Alde batetik, bakea (indarkeriarik eza gaindituko duen bake positiboaren eta bide baketsuen aldeko apustua) eta, bestetik, politika (proiektu politiko guztiak defendatu eta gauzatu ahal izan behar dira eta, beharrezkoa bada, marko juridiko eta politikoa aldatu beharko da). Gaiak hautatu eta erabakiak adostu eta gero, adierazpena idazteari ekin zioten. Testua prestatzean, arreta berezia eskaini zioten hizkuntzaren erabilerari, baztertzalea ez zen hiztegi batekin, guztiak erabat ados eta ordezkaturatuta sentitu ahal izateko. Kontxi Bilbaok (EB) dioenez, "hitz bakoitza, esaldi bakoitza, esan nahi genuena esateko disekzionatzen zen, inor zauritua, desitxuratua edota manipulaturatua senti ez zedin". Jone Goirizelaiak azpimarratzen du "aurretik existitzen zen hizkeratik ihes egiten" saiatu zirela. Dokumentu horretan, bakoitzak lor zezakeen "maximoa" eta gainerako jarrerak kontuan hartuta onar zitekeen "minimoa" adierazi zituzten.

Ahotsak mugimenduko kide gehienek –mugimendu feministako kideek izan ezik– adierazi dute hasierako uneetan ez zituztela kanpoko erreferente gisa beste herrialde batzuetako bakearen aldeko emakumeen mugimenduak edo 1325 ebazpena izan. Esan dute ez zutela beren lana esperientzia horien arabera bideratu. Hala ere, hainbat arlotan (gizarte zibila, gobernu) bake-prozesuan aktibo izan diren beste pertsona batzuek adierazi dute une horretan Euskal Herrian hainbat ekitaldi publiko antolatu zirela emakumeek bakearen eraikuntzan duten rolaren inguruan eta, beraz, gizartean bazegoela nolabaiteko ezagutza gai horri buruz, zeharka Ahotsak-en eragina izan ahal izan zuena. Lehen esan bezala, kolektibo feministak Ahotsak-en sartu izanak alderdi horretan sakontzeko aukera eman zuen eta, hain zuzen ere, abenduaren 2an argitaratutako adierazpenak 1325. ebazpena aipatu zuen, bai eta emakumeen mugimenduek bakeari egindako ekarpenak ere. Nolanahi ere, "Mujeres, paz y seguridad" agendak ez zuen eragin nabarmenik izan Ahotsak-en lanean.

Kanpoko laguntzei dagokienez, esan behar da Ahotsak-ek ez zuela egiturazko inolako laguntza ekonomikorik izan, eta ekitaldiak egiteko laguntza puntualak baino ez zituela jaso, hala nola Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen eta 2.000 emakume bildu zituen ekitaldia antolatzeko. Parte-hartzaileen konpromiso pertsonalean oinarritutako ekimena izan zen.

## 5. Oztopoak

Bere ibilbidea baldintzatu zuten hainbat oztopori aurre egin behar izan zien Ahotsak-ek, honako hauei bereziki: partidu politikoei, haien aparatuei eta barne-sektoreek sortutako hesi ikusgarriak eta ikusezinak, neurri handi batean alor politikoa emakumeek nozitutako diskriminazioarekin zerikusia dutenak; presio mediatikoei; ETAk su-eten iraunkorra haustea, eta harekin batera, testuinguruaren aldaketa kudeatzeko kanpoko zein barneko oztopoak. Aldi berean, irismen txikiagoko beste oztopo batzuei ere egin behar izan zien aurre, adibidez alor politikoko eta mugimendu feministaren alorreko Ahotsak-eko emakumeen zailtasunei, eta parte hartzen zuten sektore batzuen kontziliazio-arazoei.

### ▪ Partidu politikoen hesiak

Ahotsak-ek aurre egin zien alderdi politikoetatik eta horien "apartatu" eta barne-sektoreetatik eratorritako hesi ikusgarri eta ikusezinei, batik bat alderdietako gizonenak, baina baita emakume batzuenak ere. Ahotsak sustatu zuten politika-arloko emakume guztiek modu nabarmenean aipatutako hesia izan da. Elkarrizketatuek hesi ikusezinak aipatzen dituzte, hala nola, alderdi politikoetako sektoreen jarrerak eta erreakzioak, bai alderdiek Ahotsak-ekiko zeukaten eszeptizismoan, bai emakume parlamentarien lanarekiko gutxiespen eta erdeinuan. Protagonistek eurek eta aktore politikoek edo *peace practitioners* direlakoek kultura politikoko matxismoari esleitzen diote. Seinalatzen dute eszeptizismo edo gutxiespen haren atzean, Ahotsak hartzen joan zen potentzia sozial eta mediatikoa ikusita, alderdi politikoetako gizonaen aldean protagonismoa galtzeko nolabaiteko beldurra zegoela.

Hesi zehatzagoak ere egon ziren, hala nola ohartarazpenak, esku-hartzeak eta presio zuzenak; alderdien testuinguru maskulinizatuarekin edota Ahotsak-en dimentsio bikoitzarekin lotutako hesiak, zeren norbanako gisa aritzeko espazioa ez ezik, aldi berean, bere sustatzaileak alderdi politikoetako partaide ziren edota aulki bat zeukaten parlamentuan. Hartara, partidu politikoei, oztopo zehatzagoen parte modura, partiduetako aparatuekin fidelak ziren figura politikoak txertatu zituzten, eta horiek Ahotsak-en landinamketan partiduen logika eta interesak inposatzen saiatu ziren, akordioak erdiesteko metodologia oztopatuz.

Ahotsak-en partaide batzuekiko zentsura publiko modura presio zuzenak nabarmendu ziren –Ainhoa Aznarezen kasuan (PSN), partiduaren Eskualdeko Batzorde Eragileko zenbait emakumek eskatu zuten gaitzetsia izan zedila haren plataformarekiko atxikimenduagatik, eta ez zuen izan idazkari orokorraren babesa ere– eta, bestalde, haietako

batzuek beren partiduen onspena negoziatu behar izan zuten mugimenduaren urratsen arabera, adibidez, sortze-agiria egitean. Gemma Zabaletak (PSE), berriz, norbanako gisa parte-hartu arren, ez zuen bere partidua konprometitu nahi izan eta, beraz, alderdiko hainbat figurarekin negoziatu behar izan zuen erakundearen aparatu guztien onspena erdietsi arte. Negoziazio-lan eskerga hura oztopo izan zen, barnebiltzen dituen zailtasun eta arriskuengatik, baina behin gaudituta, balio erantsia bilakatu zen, alderdia elkarrizketaren alde eta bestearekiko aitortzarantz mugitu baitzuen.

Alderdi politikoen presio zuzenak areagotu egin ziren ETak su-eten iraunkorra haustean, batik bat PSE, EB eta EAJ/PNVko emakumeen gainean. "Alderdi Sozialistan, denak ez zeuden bake-prozesuaren alde, beraz, haiek ipintzen zizkidaten oztopo gehienak. T4ko atentatuaren ondoren, haien deiak jasotzen nituen, esanaz hau [Ahotsak] desagertu egin behar zela, era horretako presioak jasaten nituen", dio Gemma Zabaletak (PSE).

Alderdien presioek Ahotsak-ek zeharkakotasun handiagoa izatea ere oztopatu zuten. PPren posizionamenduak ezinezko bihurtu zuen alderdi hartako emakumeen parte-hartzea. PPko emakume parlamentariaren batek parte hartu zuen Ahotsak-en, gatazkaren konponbiderako ekimen bezala egituratze argiago baterantz salto egin aurretiko bileretan, baina partiduen zurruntasuna zela-eta azkenean ezin izan zuen esperientzian parte hartu.

Politika-alorreko Ahotsak-eko emakumeek ez bezala, sindikatu eta feminismoaren alorreko emakumeek ez zituzten horrelako presioak jasan, eta beren erakundearen babesa izan zuten. Ahotsak-eko parte-hartzaile sindikalistek nabarmentzen dute Euskal Herriko sindikatuek —nola independentziaren aldeko ezkerren planteamendu ideologikokoek hala partidu ez nazionalisten hurbilagokoek— aldeztu aurretiko esperientzia zeukatela emakumeen eskubideen alorreko erlazio kooperatiboan, eta hori balio erantsia izan zen Ahotsak-entzat.

#### ▪ Botere politikoaren falta

Ahotsak-en lanak izandako beste oztopo bat izan zen Ahotsak sustatu zuten emakume politikariek pisu organiko eskasa zutela beren alderdietan. Muga hau presente egon zen Ahotsak-en nukleo eragilean eta, espezifikoki, bere bi aurpegi nabarmenen eta gatazkako polo urruneneko ordezkariengan: Gemma Zabaleta (PSE) eta Jone Goirizelaia (Batasuna). Zentzu horretan, Euskal Herriko zenbait adituk adierazten du, beren alderdietan nolabaiteko munta zeukaten arren, biak ala biak partiduen aparatuetako "outsiderrak" zirela, beren partiduetan euren posizioa inposatzeko pisu organiko nahikorik gabeak, eta

horrek posizio ahulean jartzen zituela beren partiduen baitan.

Hala ere, erlatibizatu beharreko faktore bat da, Ahotsak-en xedea ez baitzen prozesu negoziatzailean aktore determinatzailea izatea edo aktore politiko eta militarrengan zuzenean eragitea; aitzitik, bere bokazioa sozialki eragitea zen, batik bat Euskal Herriko emakumeengan, norbanako gisa parte hartuz. Gainera, haien pisu organikoaren faltaren kontrapuntu gisa, biek jakin zuten aliantzak eraikitzen eta beren alderdietan eta abiatutako bake-prozesuan figura giltzarri eta goren batzuen babesa lortzen. Honako hauena, zehazki: Jesus Maria Eguiguren –PSEko presidentea 2002-2014 artean, eta 2005-2006ko bake-prozesura eraman zuten esplorazio-elkarrizketen ardatz izan zena sozialisten aldetik, Arnaldo Otegiarekin (Batasuna) batera; Batasunako Arnaldo Otegi buruzagia, besteak beste; eta Juan Jose Ibarretxe (PNV) Eusko Jaurlaritzako lehendakaria. "Aliatu nagusia Eguiguren izan zen (...). Nik azaltzen nion, hemendik noa, dokumentuak eduki hau dauka, dimentsio hau hartzen ari da... eta batik bat bake-prozesuaren aldetik sentikorrakoak izan zitezkeen zatiak eztabaidatzen nituen berarekin", nabarmentzen du Gemma Zabaletak. Politikari batzuek mugimenduarekin izandako aliantza-harremanetatik, garai hartan Eusko Jaurlaritzako lehendakari zen Juan Jose Ibarretxeren kasua nabarmendu behar da. Izan ere, harengan eragin zuzena izan zuten Ipar Irlanda, Hego Afrika eta Mendebaldeko Saharako bake-prozesuetan emakumeek izandako parte-hartzeari buruz ikasitakoek, testuinguru haietako figura gailenekin elkarrizketak izan ondoren. Ahotsak-i babesa ematea erraztu zuen horrek.

#### ▪ Presio mediatikoak

Hedabideen presioa izan zen Ahotsak-ek izan zuen beste oztopo bat. Hedabideen lan-dinamikekin lotuta, hainbat modutara gauzatu zen hori. Oztopoen artean egon ziren Ahotsak publikoki azaldu baino pixka bat lehenago prentsan egindako filtrazioak, eta 2007ko otsaileko azken agiria baino lehen egindakoak –El País-ek Ahotsak-en existentziaren berri eman zuen mugimendua jendaurrean azaldu eta bere sortze-agiria eman baino bi hilabete lehenago–; eta Ahotsak-en metodologia arriskuan jartzen zuen modu batean landu zen gaia mediatikoki, kontsentsurik gabeko gaiak azpimarratzen baitziren, besteak beste.

Onintza Lasa (EA) Ahotsak-en talde eragileko partaideak adierazten duen bezala, "batzuetan eskatzen zitzaizkigun erantzun mediatikoak guk lan egiteko moduaren oso bestelakoak ziren. Niretzat hura presio handia izan zen. Batzuetan, guk adostu edo hitz egin ez genituen puntuak bilatzen saiatzen ziren galderak. Komunikabideen lan egiteko modu hori presio handikoa izan zen niretzat. Nik esaten

nuen, 'utziezaguzue lan egiten', zeren gure erritmoan akordioak lortzera iristen ari bagara, ez daitezela gu baldintzatzen saiatu. Gauza horiek su txikitan egosten dira, eta badoaz ateratzen, baina askotan publizitateak eta fokua guztiak ongi egitearen aurkakoa dira". Presio mediatikoa, eta politikoak ere, su-etena haustearekin areagotu egin ziren.

- **Su-etenenaren haustura: gatazkaren testuinguru aldatzearen eta barne-adostasun nahikorik ez izatearen artean**

ETAren su-etena haustea funtsezko oztopoa izan zen Ahotsak-entzat. 2006ko martxoaren 24an eman zen menia, Espainiako Gobernuaren eta ETAren arteko bake-prozesu berriaren testuinguruan; 2005ean Diputatuen Kongresuan formalizatu zen eta alde aurretik hainbat esplorazio-elkarrizketa izan zituen. Urte erditik aurrera Gobernuaren eta ETAren artean izan ziren negoziazio zailen testuinguruan ezin zen atentatua<sup>14</sup> eta Gobernu espainiarreko presidentek Diputatuen Kongresuan bake-prozesuari zegokionez 2007rako hobekuntza-aurreikuspenak egin eta biharamunean. Atentatuaren ondoren Gobernuak eten egin zituen negoziazioak, nahiz eta gaur egun huts egindako prozesu hori ezinbestekotzat jotzen den indarkeriaren amaierarako. Rodríguez Zapatero presidentek berak dioenez: "T4ko atentatua kolpe bortitza izan zen, batik bat bi pertsona hil zirelako oso egoera dramatikoan, bi pertsona ekuadortar. Baina, aldi berean, ETAren behin betiko amaieraren berme edo aitzindaria izan zen. Ez daukat zalantzarik. (...) T4k ez zizkidan konbentzimenduak aldarazi, areago, azkartu egin zizkidan. (...) Izaera horretako egitatea gertatzen denean bat-bateko erreakzioa izaten da zera esatea, "ongi, amaitu da, jada ezin dugu". Bada, ez da nire pentsatzeko era, guztiz kontrakoa da. Horrek indartu egin behar du hurbilpen- eta elkarrizketa-prozesua. Sozialki, politikoki baino errazagoa da, iritzi publikoaren muga baitaukazu, 'buenista', inozo edo terrorismoaren laguna izatearen akusazioa. Beti jakin izan dut dena jokatzeko nuela bake posiblean eta ETAren amaieran sinistean, baina beti pentsatu izan dut merezi zuela".

Ahotsak su-etenenaren testuinguruan azaldu zen jendaurrean, lau urteko lan ez-publikoaren ondoren. Zentzu horretan, menia-egoerak erraztu egin zuen Ahotsak-ek ibilbidea egitea elkarrizketa-ekimen ez-publikoa izatetik (oraindik indarkeriak markatutako testuinguruan) elkarrizketa publikoak izatera (bake-prozesuaren testuinguruan). Zentzu horretan, Ahotsak-ek hilabeteak itxaron behar izan zituen ETAk su-etena iraunkorra ofizial egin zezan, bere agerpen publikoa egin ahal izateko, El País estatu-mailako

egunkarian agertutako filtrazio baten ondoren pairatutako presioen kariaz. Era berean, su-etena hausteak Ahotsak oso egoera zailean ipini zuen, eta, azkenean, haren desegitea iritsi zen. Menia hautsi ondoren, Ahotsak-ek bi agiri publiko eman zituen aditzera, baina bere jardura publikoa murrizten joan zen, 2007an amaiera iritsi zitzaien arte, aldi behingo agerraldi batzuekin, baina inolako amaiera publiko ofizialik gabe. Amaiera hartan (edo stand-by, protagonisten arabera) hainbat faktore elkartu ziren.

Alde batetik, atentatuak presio politiko eta mediatikoa areagotu zuen. Izatez, Ahotsak-eko partaide batzuek kanpoko presioei eta gatazkaren testuinguruko hondatze azkarrari esleitzen diote Ahotsak desagertzearen arrazoi nagusia. Beste aldetik, su-etena iraunkorra hausteak erantzun bat emateko tenorean ipini zuen, Ahotsak-en inguruan zegoen arreta mediatikoa kontuan hartuz.

Erantzunaren barne-kudeaketa asegaitza izan zen, izan ere, arrakala sortu zuen partaide batzuen espektatiben eta adostutako erantzun publikoaren artean. Aldi berean, badirudi arrakala horrek zerikusi estua duela dimentsio bikoitzetik eratorritako oztopoei (norbanako gisa parte hartzea eta alderdi politikoko kide izan edo kargu publikoetan aritzea), alderdi politikoen partaide izateak inplizituki muga batzuk ipini baitzituen testuinguru berriarekiko erantzuna kudeatzean. Hartara, elkarrizketatu batzuek azpimarratzen dute Ahotsak-eko emakume politikariek muga oso markatuak izan zituztela, su-etena hautsi izanaren erreakzioari zegokionez zer egin edo noraino iritsi zitezkeen erabakitzeke. Beren ekimenak su-etenarekiko zuen menpekotasuna ere iradoki dute.

Interpretazio ugari daude elkarrizketatuen artean su-etena hausteari erantzuna ematera iristeari buruzko barne-prozesuaren inguruan. Hamar urte baino beranduago, itxuraz ez dago gogoeta komunika prozesu hari buruz, bi polo urruneneko Gemma Zabaleta (PSE) eta Jone Goirizelaia (Batasuna) ordezkarien kontakizunean. Zabaletaren iritziak, erantzun ez nahikoa izan zen, atentatua eta su-etenenaren haustura termino argietan gaitzesteko ausardia pertsonala behar zen une batean, era horretan partiduen babesaren mugak gainditu behar baitziren. "Ezker Abertzaleko emakumeek ez zuten jakin esan behar zena modu askoz argiagoan esaten, hots, atentatuak bake-prozesua dinamizatzen zuela, bonbak soberan zeudela. Hautematen dut beldurra egon zela urrats hori emateko eta, beraz, aski etsigarria izan zen hura niretzat", esan du Gemma Zabaletak. Harentzat, gabezia horrek, funtsezkoa baitzen, espektatibak

14. Bake-prozesu berriak, aurretiaz, 2002az geroztik, zenbait kontaktu eta elkarrizketa arakatzailerak diskretuak izan zituen Eguiguren (PSE) eta Otegi (Batasuna) artean, eta haiek bidea ireki zioten negoziazio-prozesuari 2005ean. Informazio gehiago izateko ikus Fisas, Vicenç, Anuario de Procesos de Paz 2012, Bartzelona: Icaria, 2012; eta Aizpeolea, Luis R., "Así fue el diálogo con ETA", El País, 2007ko ekainaren 10a, [https://elpais.com/diario/2007/06/10/domingo/1181447553\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2007/06/10/domingo/1181447553_850215.html)

asko zapuztu zituen eta Ahotsak mugimendua apurtu egin zuen. Goirizelaiaren iritziz, ostera, lortutako akordioak markatzen du Ahotsak-en ibilbidea, bere barneko ugaritasuna. Harentzat, atentatuak ez zuen Ahotsak apurtu, dioenez lanean jarraitu baitzuten, nahiz eta handik gutxira fase diskretuago batera iragatea erabaki zuten, agerpen mediatikoak egiteko testuinguru politikoa ez zelako aldekoa. Ahotsak-eko hainbat lagunek erantzun amankomuna eman izana aldarrikatzen dute, minimoetakoa izan arren.

Ahotsak-eko emakumeek bakarrik, kanpoko babesik gabe, egin zioten aurre su-eten iraunkorraren haustura kudeatzeari. Atzera begiratu, partaide batek, Ahotsak-en erakunde feminista bateko ordezkaria zenak, aipatzen du kanpoko laguntza behar izango zutela lan egin eta desakordioak kudeatzeko. Zentzu horretan, Ahotsak-en baziren arren gatazkaren konponbidearekin (Lokarri adibidez) eta mugimendu bakezalearekin lotutako emakumeak, Ahotsak-ek ez zituen harreman estuak garatu eragile horiekin, eta une zailtan ez zuen tokiko mugimenduetara edo talde-prozesuak errazten laguntzen zuten eragileengana jo. Krisi-testuinguru hartan, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko *Escola de Cultura de Pau*-k babesa erakutsi zion Ahotsak-i, ekimena balioesten zuen agiri publiko baten bitartez.<sup>15</sup>

#### ▪ Beste oztopo batzuk

Ahotsak-ek irismen txikiagoko beste oztopo batzuei egin behar izan zien aurre, besteak beste, Ahotsak-en fase publikoko hastapenean, politika-arloko eta mugimendu feministako emakumei zegokiena. Arlo sindikaleko emakumeak ez bezala, mugimendu feministakoak Ahotsak-ek bere burua ezagutzera eman ondoren izan ziren gonbidatuak, eta horrek kritikak eta errezeloak sortu zituen gatazkaren konponbidean emakumeen parte-hartzea defendatzen zuela zioen, baina prozesutik kanpo utzi zituen, ekimenarekiko. Hasierako mesfidantzak eta kalteak gaindituta, harremanak hobetu egin ziren eta mugimendu feministak ekarpenak egin zituen Ahotsak-en (ikus 6. atala). Aitzitik, hainbat errezelo mantendu ziren, Ahotsak-en politika-arloko emakumeen foku mediatikoa zela-eta, beste partaide batzuegan –sindikalistak, feministak– arreta gutxiago jarri zelako. Ezberdintasunak egon ziren, baita ere, eduki eta ikuspuntuei buruz, gaur egungo bake-prozesuan bizirautean dutenak.

Beste alde batetik, Ahotsak-eko nukleo eragileak ez zituen familia-kontziliazioari zegozkion oztopo gehiegi kontuan hartu, prozesu politiko, sindikal eta sozialen

erritmora ohitutako figurak baitziren. Gainera, nukleo eragileko partaide sindikal eta feministei dagokienez, beren erakundeetan “liberatu” izatearen abantaila zeukaten. Aitzitik, kontziliazioa erronka izan zen Ahotsak-eko bigarren mailako eta tokiko taldeentzat, eta horientzat parte-hartzea konplexuagoa izan zen. Ahotsak oztopo horiek leuntzen saiatu zen, batzar orokorreko egunak eta ordu-tarteak kontuan hartuz, eta baita batzarren kokapena ere, ekimenean parte hartzen zutenen sakabanaketa geografikoaren arabera.

## 6. Ahotsak-en eragin positiboak

Ahotsak ekimenak inpaktu positibo nabarmenak lortu zituen. Lorpenen artean egon ziren elkarrizketaren aukera ikusarazi eta ezberdinen arteko akordioak bilatzeko metodologia; elkarrizketaren alde emakume ugari mobilizatzea; bake-prozesua babesteko giro soziala indartzea; ideologia politiko desberdinetako pertsonen arteko harremanak humanizatzea, elkarbizitzarako inpaktu positiboekin; baita epe luzera gatazka eraldatzeko zeharkako eragin positiboak ere.

#### ▪ Desberdinen arteko elkarrizketa eta akordioa ikusaraztea

Lorpen nagusien artean egon zen ikusaraztea, akordioak lortuz eta jarduerak eta proiektio politikoa eginez, posible zela desberdinen artean elkarrizketa izatea. Horrez gain, ikusarazi zen kontsentsua eraikitzeke metodologia zela medio (“batzen gaituena bilatu”), posible zela adostasunak lortzea. Elementu horiek erabat berriak ez ziren arren<sup>16</sup>, hizkeraren erabilpena eta inpaktua, akordioak bilatzeko metodologia eta “bestearen aitortza” biderkatu egiten ziren, Ahotsak-en irismen zabala kontuan hartuz.

#### ▪ Emakumeak mobilizatzea

Beste alde batetik, Ahotsak-ek Euskal Herriko hainbat sentsibilitate politikotako emakumeen sektore zabalak mobilizatu zituen, ezberdinen arteko elkarrizketaren aitortza soziala, praktika eta balioespena egiteko. Horrela, ezberdinen arteko entzute aktibo eta elkarrizketa-egoera ugari sortu zituen, bere ekintza eta jarduera anitzetan lehenago espazioa nekez partekatzen zuen jendea biltzen baitzuen Ahotsak-ek –batik bat emakumeak–. Mobilizazio horrek dimentsio kualitatibo eta kuantitatiboak izan zituen. Kuantitatiboki, Ahotsak-ek emakume ugari mobilizatu zituen, Ahotsak-en

15. Europa Press, “La Escuela de Cultura de la Paz de Barcelona respalda a Ahotsak y llama a fortalecer las iniciativas civiles y sociales”, Europa Press, 2007ko urtarrilaren 24a. <http://www.europapress.es/nacional/noticia-escuela-cultura-paz-barcelona-respalda-ahotsak-llama-fortalecer-iniciativas-civiles-sociales-20070124115921.html>

16. Euskal Herriko gizarte zibilaren ekimenei buruzko informazio gehiago izateko, ikus Fisas, Vicenç, ¿Llegó la hora? Promesas de paz para el País Vasco, Bartzelona: Icaria, 2010.

jardueretan parte hartu zutenak, tokiko zein tokiz gaindiko mailan, adibidez, Bilboko Euskalduna Jauregian abenduaren 2ko ekitaldia egin zuenean.<sup>17</sup> Maila kualitatiboan, Ahotsak-ek Euskal Herriko gizarte-arlo guztietako emakumeen parte-hartzea eragin zuen, politika, sindikalismoa, kultura, unibertsitatea, ekonomia, kirola edota feminismoa barne hartuz, besteak beste. Gainera, Ahotsak-ek talde lokal propioak sortzen lagundu zuen, eta horiek beren lan-dinamikak abiatu eta beren lorpen propioak eskuratu zituzten. "Ahotsak-ek ahalbidetu zuen, herrietan, hainbat sentsibilitatetako emakumeak elkarrekin mintzatzen eta lanean hastea. Lehenago sekula elkartu ez ziren hainbat arlotatik testigantzak entzun eta beren ikuspuntuak, kezak eta, batzuetan, mina konpartitzea erraztu zuen", adierazi du Elixabete Piñolek (PNV).

- **Bake-prozesuari babesa ematea**

Era berean, Ahotsak-ek, bere ibilbide publiko laburrean, bake-prozesuaren eta gatazkaren konponbidearen aldeko giro soziala indartzen lagundu zuen. "Elementu berria zen Eguigurenen eta Otegiren inguruan ospe bat sortzen joan zen bezalaxe, berdin gertatu zela Jone eta Gemmarekin. Eta gainera 2006ko bake-prozesuaren aldi berean gertatu zen. Erakunde guztiz berria zen, ezaugarri desberdinak zituen, emakumeak biltzen zituen... Horrek guztiorrek haien inguruan itxaropena sortu zuen, etorkizunarekiko ilusioa, bake-prozesu hark konponbidera eraman zezakeela sinetsarazi zuen eta espektatiba ugari sortu zituen haren inguruan. Garai hartan partiduetatik at sortu zen eta eragin handiena izan zuen ekimena izan zen", esan du Paul Rios euskal bake-prozesuko adituak. 2006ko bake-prozesuan Ahotsak aktore erabakigarria izan ez arren, bake-prozesuetan negoziazioei euskarri emateko ezinbestekoa den "sare herritar" bezala funtzionatu zuen, Paul Riosen arabera. Izatez, bake-prozesuan izandako blokeo-uneetan, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak eta beste eragile politiko batzuek Ahotsak-ek lortutako oinarritzko akordioen bidez aurrera egitera deitu zuten<sup>18</sup>. Rodriguez Zapatero presidenteak aitortu zuenez, Euskadiko polarizazio- eta gatazka-prozesuan, "giro sozial bat eta iritzi jakin batzuk elikatzeke balio dezakeen oro, *bakea, elkarriketa, elkar-ultertzea, topaketa edota elkarbizitza* hitzak ardatz izango dituen, hurbilpena errazten duen oro, eragile politikoak elkartzeke ekimen oro, kultur ekimen oro, lagungarria da, zalantzarik gabe".

- **"Bestearekin" harreman politiko eta pertsonalak humanizatzea**

Beste alde batetik, Ahotsak-ek inpaktu positiboak izan zituen hainbat politika eta ideologia politikotako pertsonen arteko harremanak humanizatzeke. Ahotsak-en jarduera-arloak ez ziren soilik antolatzen zituzten ekitaldiak, baizik ekitaldi horien ondoren, plaza eta tabernetan sortzen zen sozializazio informala. Bestea aitortuz eta aitorten hori normalizatuz, Ahotsak-ek aurreiritziak eta harremanetako hesiak apurtu zituen. "Beste aurkezpen batzuen artean, Eibarko bat daukat gogoan. Eskolta zeraman emakume bat etorri zen aurkezpenera eta bizi zuen egoera izugarria kontatu zuen eta, batik bat, bere familiak sufritzen zuena; [ETAren] mehatxu harekin bizitzea zer zen eta herrian mespretxu- eta baztertze-egoerak aurkitu zituela, gaizki sentiarazten zutenak. Hitzaldi hartan bertan beste emakume batzuek beste esperientzia batzuk kontatu zituzten: atxiloketak, urruntzeak, torturak [poliziaren partetik], etxeko bat zeukaten preso oso urrun, eta kilometro anitz egiten zituzten bisitatu ahal izateko, eta askotan gertatzen zitzaien ezin ikustea. Bakoitzak berea kontatuz, errespetuz, eta enpatia sentitzen zenuen. Oso ekarpen txikia izan arren, zerbait positiboren hazia ereiten ari gara hemen: bakoitza bere munduan bizi izan ziren emakumeak, haien arazoak, Ahotsak-i esker, ireki eta bestearen tokian jartzeko aukera izan dezaten lortzea", adierazi du Elixabete Piñolek (PNV). "Herriko plazan denak batera kafe bat hartzeke gai izan ginen. Eta hori asko izan zen", Juli Arregi (Batasuna) Elgoibarko talde lokaleko partaideak, adibide bat emanez. Ezberdinen arteko harremanen humanizazioa arazo nabarmena da, kontuan hartuz Euskal Herrian bakea eraikitzeke erronketako bat, lehen eta orain, elkarbizitza eta adiskidetzeta dela. Zentzu horretan, Ahotsak amaitu eta gero etapa horretan sortutako giza harremanak mantentzea ondare-elementu positiboa da. "Bada oraindik kontaktu minimoa. Kanean topatuz gero, mintza gaitetzke, eta Ahotsak baino lehen, ez. Urte asko pasa dira baina pertsona haiekin hitz egiten jarraitzen dut", adierazi du Miren Arratek (EA).

- **Gatazkaren konponbidea epe luzera**

Bake-prozesua hautsi eta Ahotsak disolbatu (edo *stand-by*) arren, egindako lanak epe luzerako zeharkako inpaktu positiboak utzi zituen gatazkaren konponbideari dagokionez. "Uste dut PSEn eta Ezker Abertzalean gauzak beste era batera ikusteko aukera utzi zuela, eta beste aukera batzuk bazeudela erakutsi zuela (...)", dio Paul Riosek. "Ahotsak-ek

17. Guenaga Bidaurrezaga, Aitor "Ahotsak pide compromiso a las mujeres para hacer "irreversible" el proceso", *El País*, 3 de diciembre de 2006, [https://elpais.com/diario/2006/12/03/paisvasco/1165178401\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2006/12/03/paisvasco/1165178401_850215.html)

18. Fisas, Vicenç, *Anuario de Procesos de Paz 2012*, Barcelona: Icaria, 2012..

jende desberdina mahai bakar batera jesartzea ez ezik, gauzak modu bateratuan esatea lortzen zuen. Ahotsak-etik alderdi politikoek modu bateratuan egin ez ditugun deklarazioak egin ziren. (...) Uste dut hor konponbide-ereduak geratu zirela, bestearen jarrera onartzea, entzuten jakitea, eta horrek mesede egin diela Euskal Herriko bake-prozesuari dagokionez egin diren ondorengo pausoei”, ziurtatu du Juan Jose Ibarretxe (EAJ/PNV) Eusko Jaurlaritzako Lehendakari ohiak, Ahotsak-en garaian agintean egon zenak.

Paul Riosen arabera, hainbat faktore metatzea, Ahotsak-en inpaktu eta ondarea barne, lagungarri izan zen Ezker Abertzalearen baitan estrategiari buruzko eztabaida zorrozteko eta, horrekin batera, bide soilik politikoak aukeratzeko; hori erabakigarria izan zen ETAk ondorengo urteetan hartuko zuen norabidean.

Beraz, zeharkako hari bat egongo litzateke, Ahotsak-en esperientzia eta eragin positiboak 2010-2011tik aurrera garatutako etaparekin lotzen dituen. Etapa horrek alde anitzeko bake-prozesu bati bide eman zion, eta horrek 2017-2018an ETA desarmatzea eta desegitea eragin zuen.

## 7. Jarraitutasuna, ondarea eta ikasgaiak

2007tik aurrera, Ahotsak pausatu egin zen eta bere jarduera publikoa murriztu egin zuen. 2007ko urtarrilean agiria eta aurkezpen publikoa egin ondoren –atentatuarekiko hurbilpen ezberdinak nabarmendu ziren, baina Ahotsak-ek esan zuen bere lanean jarraituko zuela–, presio politiko eta mediatikoak ez ezik, barne-zailtasunak izan ziren denak aseko zituen kontsentsuak lortzeko. Oztopo horiek Ahotsak-en hurrengo eta azken agiri publiko baten karira birsortu ziren, 2007ko otsailean, eta horren zirriborro bat prentsara ezkutuan pasatu zen, oraindik adostu eta partaide guztiekin kontsultatu gabe zegoena. Kanpoko eta barneko oztopoen testuinguru horretan, Ahotsak-en proiektua oso ahulduta geratu zen. Partaide batzuk urrundu egin ziren, adibidez Gemma Zabaleta (PSE), Ahotsak amaierara iritsi zela kontsideratzean. Orduan, nukleo eragileko partaideen artean barne-gogoetak egin ziren “argazki osoa izan gabe” Ahotsak-i jarraitutasuna emateari edo ez emateari buruz. Hainbat emakume parlamentariaren iritziz, soilik espektro politikoaren zati batekin ekitaldi publikoak egiten jarraitzeak Ahotsak-en esanahia desitxuratzen zuen. “Argazkiak guztiona izan behar du, zeren bestela sentsibilitate

bakar batekin identifikatuko da eta, horrekin, indartu egingo dugu ala indarra kenduko diogu?”, adierazi zuen Elixabete Piñolek (PNV).

Orduz geroztik Ahotsak mugimenduan jarraitu zuten emakumeen lehentasunak barne-lanera bideratu ziren, eta hainbat proiektu bultzatzen saiatu ziren, adibidez hainbat udalerritan zuhaitz bat landatzea, elkarrizketarako espazioa adieraziz. Hitzaren bidez gatazkak konpontzeko ekimenak, euskal tradizioan errotutako Gernikako arbolaren inguruan egin zenak –Wangari Maathai Bakearen Nobel Sariaren babesa izan zuen–, ez zuen aurrera egin, eta irismen mugatua izan zuen. Hurrengo urteetan, Ahotsak-ek noizbehinkako presentzia publikoa izan du, ad hoc, baina sortze-nukleoko partaide askok –adibidez Zabaletak (PSE)– amaitutzat eman zuten Ahotsak-en jarduna. Gainera, nukleo eragileko emakume parlamentari gehienek, gerora, politika utzi zuten, eta euren egoera pertsonala eta kontziliazio-premiak (haurren heziketa, guraso nagusien zaintza, erantzukizun profesionalak) ez ziren onenak izan inplikazio estuaren erritmoa mantentzeko.

Tokian tokiko alorrari dagokionez, Ahotsak-eko taldeak ere desegin egin ziren, bakoitza bere erritmoan. Desagerpen horrek nabarmentzen du, bai tokiko taldeek Ahotsak-en proiektu orokorrarekiko, edo nukleo eragilearekiko, zeukaten menpekotasuna, eta bai tokiko taldeentzat horrek zekartzan iraunkortasun-erronkak ere. “Pena eman zidan eta, egia esan, taldean ere pena sentitu genuen, Ahotsak herritarrei akordioetara iristea posible dela erakusteko modu bat baitzen, baina maila nazionalen Ahotsak hautsi bada, gurekin bakarrik ezin du aurrera egin. Kakotxen artean, goitik lanik eskaintzen ez badizute, uzten joaten zara. (...) Batzar nazionalak edo eskualdekoak zeudenean funtzionatzen genuen. Lan horri etekina ateratzen badiozu jarraitu egiten duzu, baina etekinik ikusten ez diozun unetik, hozten joaten da. Eta ez genuen esan ‘ez gara aurrerantzean batzartuko’, uzten, uzten zoaz, ordea, eta azkenean konturatu gabe desagertu egiten da”, azaldu du Miren Arrate (EA) Elgoibarko Ahotsak taldekoak, talde aktiboenetakoa berau.

Gaur egun ikuspegi kontrajarriak daude mugimendua desagertu den ala stand by egoeran dagoen iriztean. Ahotsak-ek espektatiba ugari sortu zituen, eta bere disoluzio konplexuak edo fase-aldaketak halako etsipen- eta umezurtz-sentsazioa sortu zuen herritarrengan; sektore batzuetan, politika-alorreko emakumeekiko halako etsipen-sentsazioa utzi zuen. Edozein moduz, Ahotsak-en azken faseko zailtasunak zailtasun, iruditeria sozialean Ahotsak ekimen ausart

modura ikusten da, elkarrizketa posible zela erakutsi baitzuen eta alor guztietako emakumeak mobilizatu baitzituen.

Bestalde, Ahotsak-ek ez zuen jarraitutasun zuzena izan beste proiektu batzuetan, edo soilik modu osagarrian izan zuen. Hala ere, hurrengo urteetan beste espazio batzuk sortu ziren, gatazkan eraldatzean emakumeen eginkizuna bultzatzeko bokazioarekin, adibidez Emagune –unibertsitate alorrean sortutako ekimena–, non inplikazio gutxi-askorekin Ahotsak-eko partaide batzuek parte hartu zuten, hala nola, Jone Goirizelaiak (Batasuna) – Emaguneko bultzatzaileetako bat– edota mugimendu feminista eta sindikaleko emakumeek. Emaguneri laguntza tekniko eman zioten emakumeek eta bake-prozesuen alorreko aditu batzuek diote, modu harrigarrian, Emagunek, hasiera batean, ez zituela Ahotsak-ekin jarraitutasun-hariai planteatzen. Beste espazio bat da Bake Prozesua Bultzatzeko Foro Soziala, hots, 2010-2011n abiatutako bake-prozesu aldeaniztuneko etapan parte hartu zuten gizarte zibileko eragileek osatutako plataforma. Ahotsak, desagertu ala stand by-n egon, formalki, Foro Sozialaren entitate bultzatzaileen artean dago. Ahotsak-en parte hartu zuten emakumeak, adibidez Jone Goirizelaia (Batasuna) eta Nekane Altzelai (EA), Foro Sozialeko partaide dira. Foroak Genero Talde bat dauka bere baitan, eta bake-prozesuan genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna du lan-ardatzetako bat, nahiz eta ikusgarritasun publiko eta ekimen zehatz gutxiago eduki duen beste lan-ardatzek baino, besteak beste Armagabetzea, Desmobilizazioa eta Gizarteratzea (DDR siglak, gaztelaniaz), memoria eta elkarbizitza edota pertsona preso eta iheslariak.

Txosten honetarako elkarrizketatu ditugun Ahotsak-eko partaide guztiek, eta Ahotsak-etik kanpoko eragileek ere, Ahotsak-ek izandako balio handia nabarmendu dute, azken faseko zailtasunak zailtasun. Hainbat eragin positibo aitortzen dizkiote Ahotsak-i (ikus aurreko atala). Horien artean, ETArek amaieraren gaur egungo agertokia ez zatekeen posible izango Ahotsak bezalako plataformek bidea zelaitu izan ez balute. Ahotsak-en esperientziatik ikasgai erabilgarriak erortzen dira, gatazka-testuinguruetan eta elkarrizketa-hurbilpeneko ekimenetan ari diren emakumeentzako, elkarrizketetan ere nabarmendu direnak:

- Aurreraegiteko premisa bat da kontzientzia hartzea, sufrimendu kolektiboan ez dela aurrerantzean bizi ahal. Hurbiltzea sortzeko jarrera proaktiboak eta aldekoak ere lagungarri dira.
- Elkarrizketa sustatzeko ekimen bat abiatzen denean, garrantzizkoa da gogoan izatea ondo ala gaizki atera daitekeela, baina merezi duela. Ibilbide txikia eduki arren, aurrerapauso bat izan

daiteke, ibilbide txikiek gatazkan konponbidera hurbiltzen baitute.

- Funtsezkoa da konfiantza eraikitzea. Hartarako, beharrezkoa izan ohi da diskreziozko lan-fasea, non konfiantza-eraikitzeak “bestearen” aitortza ahalbidetzen duen. Askotariko osaera duten ekimenetan, komeni da arreta eta denbora eskaintzea sektore desberdinetako parte-hartzaileen artean konfiantza sortzeko.
- Konfiantza eraikitzeak eta puntu amankomunak bilatzeak akordioetara iristea errazten du, minimoak izan arren. Akordioak balioetsi behar dira, minimoak edo ezgauzak iruditu arren. Akordio handiek alde aurretiko akordio mugatu batzuk egitea eskatzen dute.
- Konfiantza ez ezik giltzarria da onestasuna, gardentasuna eta erabateko zintotasuna izatea elkarrizketa-ekimeneko partaideen artean, jokoan dagoena alderdien interesen haragoko arazoak baitira, adibidez sufrimenduaren amaiera gatazkan dagoen gizarte batean. Aldi berean, konbentzimendu sakona eta konpromiso pertsonala behar dira, alderdi eta erakunde armatuen presioak presio.
- Garrantzitsua da ulertzea nondik datorren bestearen kontakizuna eta egia, baita gatazkan gertatutako guztia mahai gainean jartzea ere, lagungarri baita kontakizun biktimistetatik urruntzeko.
- Batzen duenari buruzko akordioak eraikitzeo metodologia –banantzen duenaren orde– funtsezkoa da banandutako gizarteetan elkarrizketa sustatzeko ekimenak egiteko.
- Elkarrizketa sustatzeko ekimenek egoak, protagonismoak, eta era guztietako etekin politikoak bazter uztea eskatzen dute.
- Garrantzizkoa da mugimendua artikulatzea, oinarri soziala indartzea eta espazioa babestea, hasieratik eta haren existentziaren luze-zabalean, bereziki zailtasun-faseetan. Espazioa babesteak eskatzen du, gainera, fase guztietan espazioa eta denbora ematea prozesuari berari eta funtzionamenduari buruz gogoeta egiteko. Oinarri sozial sendoa daukan mugimendu bat epe luzeko iraunkortasunaren bermea da.
- Indarkeriarik ez egoteak baldintza hobek sortzen ditu aurrera egiteko, ordea, indarkeria dagoen bitartean akordioetara iristea zailagoa izan ohi da. Aldi berean, une zailtan izaten dira beharrezkoagoak bake-ekimenak, horregatik funtsezkoa da haren sendotasuna krisi-faseetan. Horretarako, erabilgarria izan daiteke arrisku-elementuak garaiz detektatzea (adibidez narriadura-seinaleak gatazkan testuinguruan), alde aurreko alerta gisa, eta hari aurre egiteko mekanismoak edukitzea.
- Desadostasunak egotekotan, erabilgarria izan daiteke errazteko eta laguntzeko gaitasuna duten



eragileei, edo konfiantza sortzen dutenei edo partaideen aurrean legitimotasuna dutenei, kanpo-laguntzak eskatzea.

- Desadostasunak egotekotan, kaltegarria izan daiteke hedabideetan filtrazioak egitea.
- Garrantzitsua da sortutako espektatiba sozialei arreta ematea, gizartean etsipena ekiditeko.
- Ezohikoa izaten da ekimen bat erabat berria edo aitzindaria izatea. Aurretik izandako esperientzia eta lorpenekin konexioak bilatzeak, eta aurretiko zein aldi bereko ekimenekin gogoeta- eta kolaborazio-espazioak sortzeak, inpaktu eraldatzailea indar dezake, eta zailtasun-faseetan laguntza eta irtenbideak izateko aukerak areagotzen ditu.

## 1. ERANSKINA

Ahotsak-en sortze-agiria. Donostia, 2006ko apirilak 8

Ahotsak" Emakume Taldeak, Bakearen Aldeko Emakumeen Ahotsak, bere Adierazpena publiko egiten du, euskal bake-prozesuaren ekarpen gisa.

Agiri hau sinatzen dugunok ideologia, tradizio eta sentimendu ezberdinak ditugun emakumeak gara; banatzen gaituena alde batera utzi eta batzen gaituenetik abiatuta, eta modu pertsonalean, bake eta adiskidetzearen bila urratsak esploratu nahi ditugu.

Agiri honekin ez dugu ez ezer ez inor ordezkatu nahi; gure asmo bakarra, bakoitza dagoen lekutik, egungo egoerari bultzada ematea da, bai eta konponbidea bilatze lanetan laguntzen saiatzea ere, aurreiritzirik eta baldintzarik gabeko elkarrizketa abiapuntu ona dela baieztatuz, pertsona guztien eskubideen errespetua ere den moduan.

Itxaropenezko orain eta etorkizun baten alde lan egiteak amankomuneko militantzia, geurea alde batera utziz, aintzat hartzera behartzen gaitu: bakearen aldeko militantzia, hain zuzen; izan ere, bakeak sabotadore ugari ditu beti gatazka guztietan eta argi izpi bat ekartzea ezinbestekoa da.

Beraz, emakumeok bakearen aldeko eragile aktibo izan behar dugula uste dugu, bai eta gure herrian ireki beharreko itxaropenezko prozesu berrian parte hartu behar dugula ere.

Gaur egun, eta bizi dugun gizarte eredia kontuan hartuta, gure herriko bizitza politikoan gizon eta emakumeon papera ez da bera. Hala ere, eta guri ere dagokigun gatazka politikoaren ondorioak pairatzen ditugun heinean, konponbideak bilatzerakoan emakumeok ere izan behar dugun partehartzea eta protagonismoa aldarrikatzera gatoz. Konponbidearen subjektu aktibo izan behar dugu, orain arte gertatutakoaren subjektu izan garen bezala.

Horregatik hiru premisetan oinarritzen den etapa berri bat irekitzeko aukera ahalbidetu nahi dugu:

1.- Bakea erdiestea eskakizun kolektiboa eta lehentasun politikoa da. Denon lana da, eta ez da soilik eta bakarrik edozein motatako bortxakeria ez egotea. Bakearen kontzeptua, gure iritziz, ez dago hutsik, kontrakoa baizik. Guretzat, demokrazia eta gizarte justiziarekin zerikusia du, gatazka historikoak amaitutzat ematea eta, askatasunak zein eskubideak oinarri gisa, garai bat ixtea ahalbidetuko duen aldaketa prozesu batekin, alegia.

2.- Proiektu politiko guztiak defenda daitezke eta defendatu behar dira, bat bera ere inposatu gabe. Bide politiko eta demokratikoak erabiliz, baldintza

berdinetan, proiektu politiko guztiak garatu eta gauzatzea bermatu eta ahalbidetuko duen eszenatoki demokratikoa bilatu behar da.

3.- Euskal gizarteak, Euskal Herriko hiritarrek, egungo marko juridiko-politikoak eraldatu, aldatu edo mantentzeko borondatea baldin badu, guztiok beharrezko diren berme demokratikoak eta adosturiko prozedura politikoak ezarri eta errespetatzeko konpromisoa hartu beharko genuke, euskal gizarteak erabakitakoa errespetatua eta gauzatua izan dadin eta, beharrezkoa balitz, erabaki honek lege araudian bere isla izan dezan.

Zentzu honetan, gizonak eta emakumeok gizartearen dugun partehartze ezberdina zehazten duten baldintzei aurre egin beharko zaiela uste dugu, egun ez dagoen eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko asmoz. Honek geure eskubideak, emakumeenak, aitortzea dakar, eta hori posible izango da bakarrik prozesuan partaide diren eragile guztien konpromiso sendoa baldin badago.

Agiri hau sinatzen dugunok konponbiderako aukerak egon badaudela uste dugu eta horretarako guztiok elkar onartu eta besteak duen egia ikusten saiatu behar dugulakoan gaude. Gure irudiko, adostasuna lortzearren hitz egitea aurrez eman beharreko urratsa da, eta hori demokrazia indartzea da, ez ahultzea.

Guk ez dugu hauteskundeetan arrakasta bilatzen, ezta gure aukera politiko, sindikal, sozial edo kulturalaren defentsa ere; ez dugu inoren txaloa bilatzen eta kritika itzelari ere ez diogu beldurrik; aitzitik, egungo egoerak bere horretan jarrai ez dezan lan egiteak merezi duela pentsatzera eramaten gaitu, konponbiderik nahi ez dutenek orain arte beti ezinezkotzat jo duten bideak sinesgarritasuna izan dezan.

Deklarazio hau sinatzen dugun emakumeok, beste bake-prozesu batzuetan beste emakume batzuek egin duten bezala, prozesu hau blindatzearen alde lan egingo dugu, hondoa jo ez dezan, zapuztu ez dadin eta, prozesuan zehar nahiz konponbidean, emakumeok partaide aktibo izan gaitezen eta gure papera eta gure protagonismoa aldarrika ditzagun. Azken batean, prozesua eta bere irtenbidea sendotzeko hiritar guztien partehartzea ahalbidetuko duten berme demokratikoak ezartzearen alde lan egingo dugu.

Horregatik egiten dugu ekarpen hau; ideiak kontrajartzeko, hitz egiteko, hurbiltzeko, negoziatzeko, planteatzen ditugun oinarrietatik abiatuta bakea eraikitzeko lanean gure esku dagoen guztia jartzeko prest gaude.

Donostian, 2006ko apirilaren 8an

Escola de Cultura de Pau (ECP) bakea ikertzeko

## ***Escola de Cultura de Pau (UAB)***

instituzio akademikoa da, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan kokatua. 1999an sortu zen, ikerkuntzaren, diplomazia paraleloaren, formakuntzaren eta sentsibilizazioaren bitartez bakearen kultura sustatzeko asmoz.

Hauek dira Escola de Cultura de Pau-ren ekintza-esparru nagusiak:

- **Ikerkuntza.** Gatazka armatuak eta krisi soziopolitikoak, bake-prozesuak, giza eskubideak eta justizia trantsizionala, generoa eta bakerako hezkuntza barnebiltzen dituzte ECPren ikerkuntza-alorrek.
- **Diplomazia paraleloa.** ECPk elkarrizketa eta gatazken eraldaketa sustatzen du diplomazia paraleloko ekimenen bitartez, hainbat eragilerekin eta hainbat ekintza-esparrutan.
- **Aholkularitza-zerbitzuak.** ECPk aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen dizkie tokiko eta nazioarteko instituzioei.
- **Hezkuntza eta formakuntza.** ECPko ikertzaileek graduoko eta graduondoko ikastaroetan ematen dituzte eskolak Kataluniako unibertsitatetan, Bake-Kulturako Diplomatura barne, ECPk berak Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eskaintzen duen graduondoko titulua. Era berean, eskolak eta tailerrak ematen dira gai espezifikoen inguruan, besteak beste gatazkan eta gatazkarako hezkuntzan, eta gatazkarekiko sentsibilitatean.
- **Sentsibilizazioa.** ECPk sentsibilizazioari dagokionez egiten dituen ekimenetan Kataluniako eta Espainiako gizartearentzako jarduerak barnebiltzen dira, besteak beste, hedabideekin lankidetzan.

## ***Democratic Progress Institute***

*Democratic Progress Institute*-ren (DPI) helburuen artean honako hauek daude:

- Bakeari eta demokraziaren eraikuntzari buruzko elkarrizketa publiko egituratua eraikitzeari buruzko eztabaidarako oinarriak zabaltzen eta espazio berriak eskaintzen laguntzea.
- Zenbait eragilek azterketa konparatiboak, analisiak eta antzeko kasuetan emaitza positiboak lortzeko baliatu izan diren mekanismoak alderatzeko aukerak eskaintzea.
- Giro bat sortzea, hainbat eragilek ezagutza, ideiak, kezkak, iradokizunak eta erronkak parteka ditzaten, Turkian eta eskualde horretan konponbide demokratikoa garatzeko.
- Eragile akademikoen, gizarte zibilaren eta arduradun politikoen arteko lankidetzan babestu eta indartzea.
- Lehentasun komunak identifikatu eta hurbilketa berritzaileak garatzea, demokrazia eraikitzen parte hartu eta eragiteko.
- Giza eskubideak sustatu eta babestea, arraza, sexua, hizkuntza, erlijioa, joera politikoa edo bestelako iritziak edozein izanda ere.

êçp escola de  
cultura de pau



**Escola de Cultura de Pau**


Parc de Recerca, Edifici MRA,  
Universitat Autònoma de Barcelona  
08193 Bellaterra (Espanya)

+34 93 586 88 42

pr.conflict.escolapau@uab.cat

escolapau.uab.cat

@escolapau 

EscolaPau 

**Democratic Progress Institute**


11 Guilford Street. London WC1N 1DH.

Reino Unido

+44 (0)2074053835

info@democraticprogress.org

www.democraticprogress.org

@DPI\_UK 

DemocraticProgressInstitute 